

[EUSKAL AEko TXIKIZKAKO MERKATARITZAREN INDIZEA \(BMIT\) 2012ko 2. hiruhilekoa](#)

Euskal AEko txikizkako sektorearen salmentak %6,1 jaitsi ziren 2012ko bigarren hiruhilekoan

Gasolindegia sartu gabe, salmentak %7,3 murriztu ziren

Eustatek emandako datuen arabera, 2012ko bigarren hiruhilekoan, Euskal AEko txikizkako merkataritzaren sektorean salmenta nominalak %6,1 murriztu ziren, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean.

Gasolindegia sartu gabe, sektoreko salmentak %7,3 jaitsi ziren urte artekoan.

Aurreko hiruhilekoaren aldean salmenta-indizea %3,7 nominala murriztu da, urtaroraginak kenduta.

1. taula. Euskal AEko txikizkako merkataritzaren indizea. Urte arteko eta hiruhile arteko aldakuntza-tasa. 2. hiruhilekoa. 2012(p)

	UNEKO PREZIOAK		PREZIO FINKOAK	
	t / t-4	t / t-1	t / t-4	t / t-1
INDIZE OROKORRA lurralde historikoaren arabera				
Euskal AE	-6,1	-3,7	-7,6	-3,7
Araba/Álava	-3,8	-1,9	-6,3	-2,6
Bizkaia	-7,4	-5,0	-8,6	-4,6
Gipuzkoa	-5,0	-2,5	-6,5	-2,9
INDIZE OROKORRA sektorearen arabera				
Elikagaiak	-3,9	-2,1	-6,1	-2,2
Elikagaietan espezializatuta	-5,4	-0,8	-7,7	-3,7
Ez espezializatuta, elikagaidunak bereziki	-3,0	-2,4	-5,2	-2,8
Beste produktuak	-9,9	-6,2	-9,6	-5,2
Pertsonen hornikuntzan espezializatuta	-11,3	-6,5	-9,4	-6,5
Etxearen hornikuntzan espezializatuta	-12,4	-4,0	-12,2	-3,6
Beste kontsumo ondasun batzuetan espezializatuta	-5,6	-1,2	-7,2	-2,0
Ez espezializatuta, gainerako produktudunak bereziki	-7,5	-2,3	-9,3	-5,0
Automoziorako erregaia	3,9	0,5	-3,0	0,3
SALMENTEN INDIZEA zerbitzugunerik gabe	-7,3	-4,4	-8,1	-3,9
ENPLEGU INDIZEA				
Euskal AE	-3,2	-0,8		

t / t-4 Urte arteko aldakuntza. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak.

t / t-1 Hiruhile arteko aldakuntza. Datu desestazionalizatuak.

Iturria: EUSTAT. Euskal AEko txikizkako merkataritzaren indizea (BMIT)

Elikagaien salmenta nominalak %3,9 murriztu ziren 2012ko bigarren hiruhilekoan; Gainerako produktuetan %9,9 jaitsi zen eta Automobilgintzarako erregaian %3,9 igo, beti ere 2011ko aldi beraren aldean.

Elikagaien txikizkako merkataritzan espezializatua %5,4 jaitsi zen, eta elikagaiak nagusi diren ez-espezializatuan %3. Gainerako produktuen txikizkakoan intentsitate ezberdineko jaitsierak ditugu. Etxeko ekipamenduaren espezializatuan %12,4ko jaitsiera; Pertsonaren ekipamenduan %11,3koa; Kontsumoko beste ondasunetan %5,6 eta Gainerako produktuak nagusi diren txikizkako ez-espezializatuan %7,5.

2012ko bigarren hiruhilekoan txikizkako sektoreko salmenta nominalak %7,4 murriztu dira Bizkaian urte artean; Gipuzkoan %5 eta Araban %3,8.

Prezio finkoetan, alegia, prezioen eraginik gabe, txikizkako merkataritzaren salmentak %7,6 murriztu dira bigarren hiruhilekoan

Txikizkako salmentek -gasolindegia sartu gabe- %8,1eko jaitsiera erreala izan zuten aurreko urtearen aldean.

2012ko bigarren hiruhilekoan Euskal AEko txikizkako merkataritzaren salmenta errealetan %3,7ko jaitsiera dago lehen hiruhilekoaren aldean eta urtaro-eraginak kenduta.

Elikagaien txikizkakoan jaitsiera erreala %6,1 izan zen; Gainerako produktuetan %9,6, 2011ko hiruhileko beraren aldean eta Automobilgintzarako erregai-salmentetan %3.

Elikagaien txikizkakoan urte artekoak negatiboak izan dira bai espezializatuan %7,7, bai elikagaiak nagusi diren ez-espezializatuan, %5,2. Gainerako produktuen merkataritzan, jaitsierak sektore guztietan. Etxearen ekipamenduan %12,2ko jaitsiera; Pertsonaren ekipamenduan %9,4koa; Kontsumoko beste ondasunetan %7,2koa, eta beste produktuak nagusi diren ez-espezializatuen salmentetan %9,3koa, beti termino errealetan.

Hiru lurraldeetan izan ziren jaitsierak salmentetan termino errealetan: Bizkaian %8,6, Gipuzkoan %6,5, Araban %6,3.

Euskal AE osoan, 2012ko lehen hiruhilekoaren aldean, merkataritzako sektorean landunen kopurua %0,8 murriztu da 2012ko bigarren hiruhilekoan.

Oharra: 2012ko bigarren hiruhilekoko Txikizkako Merkataritzaren Indizearekin markoa eguneratu eta indizearen erreferentzi urte berri 2010 ezarri da. JESN-09tik abiatutik sektoretze berria ezarri da, Zerbitzuen Koiunturako Indizean integraturik. Honek guztiak Indizearen serieen birzenbatespena ekarri du.

Informazio gehiago:

[Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helb. elektronik.: eustat@eustat.es

Harremanetan jartzeko pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.: +34-945-01 75 06 Faxe: +34-945-01 75 01

[Euskal AEko Txikizkako Merkataritzaren Indizearen gaineko prentsa-ohar gehiago](#)

[Euskal AEko Txikizkako Merkataritzaren Indizearen gaineko datu-bankua](#)